

## **BI MILA ETA HAMABIKO EKAINAREN 21EAN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

2012ko ekainaren 21ean, 20:30ean, Etxarri Aranazko Udalak, 3 zinegotziek eskatuta, ez ohiko eta premiazko Osoko Bilkurara deitu du, eta lehenengo deian osatu da, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea mahaiburu izan du, eta ondoko zinegotziak agertu dira:

### **Agertu dira**

**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.**  
**ENEKA MAIZ ULAYAR and.**  
**EDURNE IGOA LIZARRAGA and.**  
**ARACELI ERDOZIA ANSO and.**  
**MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.**  
**MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.**

### **Ez dira agertu**

**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.**  
**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and**

### **Idazkaria**

**Silvia Gonzalo Etxarri**

Alkateak, ezer baino lehen, bilkuraren arrazoia justifikatu du: Bilduko 3 zinegotzik (Aitor Karasatorre, Eneka Maiz eta Iñigo Lazkoz) 2012/06/20an bilkura berezi bat (ez ohikoa eta premiazkoa) egiteko eskatu zuten. (Toki Administrazioako 6/1990 Foru Legearen 77.2 artikuluan oinarri hartuta)

Gai larria eta oso garrantzitsua denez, bilkuran puntu BAKARRA izateko eskatu zuten: “San Adrian eguneko gertaerak”

Egun berean udal langile guztiek gai berdinari buruzko beste idazki bat aurkeztu zuten: langileen aurka izandako erasoak direla eta, salaketa eta udalari behar den babes eskaera.

Udalbatzak aho batez onartu du justifikazioa eta, jarraian, bilkurari eman zaio hasiera.

## **1.-SAN ADRIAN EGUNEKO GERTAERAK**

Alkateak 3 zinegotzik aurkeztutako idazkia irakurri du.

Mozioaren testua:

Azken honetan Etxarriko udaleko hautetsi eta langileen aurka egondako erasoak direla eta, Etxarriko udalbatzak:

• Gogor salatzen ditu egunotan Etxarriko udaleko kideek jasan dituzten eraso, irain eta heriotza mehatxuak, oso gertaera larriak izan baitira.

• Babes osoa ematen die irainak jasan dituzten hautetsi eta langileei, eta bat egiten du beraiekin:

- Nabarmendu nahi du langileen lana udalaren ardurapean egina dela, eta udalak berak duela langileen jardueraren erantzukizun guztia.
- Adierazten du, batetik, udal hautetsiak herritarrek hautatutako ordezkari legitimoak direla, eta bestetik, udal langileak herritarren zerbitzura zintzoki lan egiten duten pertsonak direla. Hortaz, udal hautetsi eta langileak iraintzea etxarriar guztiak iraintzea ere badela.
- Konpromisoa hartzen du, mehatxuak mehatxu, beharrezkoak diren erabaki administratiboak hartzen jarraitzeko, eta beharrezkoak diren praktika politikoak zintzotasunez eta zorrotasunez gauzatzeko, elkarlanaren eta parte-hartzearen bidez.
- Dei egiten die etxarriar guztiei, elkarbizitzaren alde eta gizarte demokratiko bat eraikitzearen alde lan egin dezaten, irainak eta probokazioak alde batera utzita.

Oharra: Etxarriko udalak Mozio hau herritarrei eta komunikabideei jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Hala ere, alkateak langileek aurkeztutakoa irakurri du:

Testua:

Azken honetan Etxarriko langileen aurka egondako erasoak direla eta behean sinatzen dugun Etxarri Aranzko udaleko langileok, udalari behar den babesa eskatu nahi diogu.

Langileok babesa ematen diegu irainak jasan dituzten langileei.

Salatzen ditugu udal langile eta hautetsiek jasandako erasoak eta mehatxuak, hauek herritarren zerbitzura lan egiten duten pertsonak dira, herriarentzat hain zuzen ere.

Langile guztiak elkarbizitzaren eta errespetuaren alde gaude, irainak eta mehatxuak alde batera utzita.

Udalbatzak aho batez onartu du mozioaren edukia, eta bat egin du langileen eskaerarekin.

Eta aztergaien artean beste gairik ez dagoenez, 20:45ean presidentek, Osoko Bilkura amaitutzat emanik, idazkariarekin batera akta sinatu du, eta idazkariak horren fede ematen du.